

ZAA

ZORROTZ MORROTZ

68. ZBKIA 2021eko MARTXOA

JABI PUERTAS

INDUSTRI ONDARE ETA HERRI LANEKO EUSKAL ELKARTEKO PRESIDENTEA

ZORROTZAKO OSTALARIAK

Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!



www.comerciantes-zorrotza.com

MERKATARITZA AZOKA

martxoak 5-6

**Arrugaeta drogeria
D`jamberri zapatadenda
Nuria lurrindenda
Lápices liburudenda
Loykar jantzidenda
Goorsan
Omega Opariak
Garras
Omega zapatadenda
M^a Carmen mertzeria
Leire oinetakoak konpontze-denda
La Casa del Cabello
El Acerico mertzeria
Trendy 22
Venta Vieja
Iker kafetegia
Madness kafetegia**

**Erosketak egitean,
elkarteko dendetan
gastatzeko 40
euroko 8 balen
zozketan sartuko
zara.**



Bilbao

Pertsonak erakundeen jarduera guztien erdigunean jarri behar dira, baliabide guztiak herritarren zerbitzura egonda

Pandemia agertu zenetik urtea bete da. Urte gogorra oro har eta dramatikoa alderdi askotan, batez ere arlo sozialean eta giza bizitzetan izandako galera konponezinean. Egoera honetan zerbait argi geratu bada, sistemaren josturak ez zeudela sinetsarazi ziguten bezain ondo josita. Aspalditik, luzaroei, ohartarazi genuen zerbait...

Argi eta garbi esan behar da: baliabide guzti-guztiek, herritarren zerbitzura egon behar dutela, eta pertsonak jarri behar direla erakundeen jarduera guztien erdigunean. Ez da hitzerdika aritzeko garaia: pertsonen iritzia kontuan hartzen duen eredu bat diseinatzeko garaia da. Osasuna, hezkuntza eta oinarrizko gizarte eskubideak, lehen-tasunezko beharrak dira; inor ezin da babesik gabe geratu. Honek guztiak etorkizunera begirako irakaskuntza izan beharko luke.

Eta horretan ari gara Elkartean, Bilboko Auzo eta Herriarren Mugimenduekin batera. Ez dugu auzoarekin zerikusia duen ezer aipatu, baina oraingo honetan garrantzitsua zen hausnarketa hauek helaraztea.



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian **"harpidetza"** jarritz



Zorrotzako kultur aldzakaria
68. zenbakia. 2021eko martxoa

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 behea

48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

f facebook.com/ZorrotzMorrotz

@zorrotzmorrotz

Koordinazioa: Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Naroa Peña
- Ainara García
- Iratze Pérez
- Igor Gutiérrez
- Zuriñe Vila
- Aitor Marín


Zuzenketak: Iñigo Ramírez de la Piscina

Laguntzaileak:

- Karlos Rodríguez
- Asier Urkiza
- Manu Cobo
- Jon Puente



Zorrotz Morrotz aldzakariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du baina ZM da edukaren erantzule bakarra





Sader-Profersaren lekualdaketa eskatu dute “Aldaketaldia” ekimenaren baitan

Jon Puente

Larrialdi klimatiko, ekologiko eta sozialaren egoera larria salatzeko, kolektibo ezberdinek antolatutako “Aldaketaldia” ekimenaren barruan, urtarilaren 30 ean, inguruko enpresen kutsaduraz kaltetutako Zorrotzako eta beste auzo batzuetako bizilagunak, kalera irten ginen berriz ere aire garbia arnasteko eskubidea aldarrikatzeko.

Enpresa kutsatzaile horien artean, Sader-Profersa nabarmentzen da gure auzoan. Horregatik, goizean lantegi honen aurrean kazerolada egin zen. Arratsaldean, jai eta aldarrikapen giroan, hiriburuko Jesusen Biho-

tza plazatik abiatu ginen beste hainbat talde sinatzaileekin batera antolatutako manifestazioan.

Gogoratu nahi dugu hamarkada bat baino gehiago daramagula Sader- Profersa-ren lekualdatzea egingo dela entzuten, baina aurrerapausorik gabe. Horregatik bizigunetik kanporako berehalako lekualdaketa eskatzen dugu. Betiko lez, lekualdaketa eskatzen dugu eta ez itxiera. Ez baikara langileez ahazten eta beraien lanpostuak errespetatu nahi ditugu; horietako batzuk gure auzoko bizilagunak, kutsaduraren eta kiratsen biktimak ere badira.

Metroaren 4. lineari buruzko parte-hartze prozesu bat ireki du Euskal Trenbide Sareak

Aitor Marín

Euskal Trenbide Sareak herritarrek parte hartzeo prozesu bat jarri du abian metroaren 4. lineari buruz. <https://linea4bilbao.eus/> webguneak linea berri honetarako proposamenei buruzko informazio zehatza eskaintzen du, eta, horrez gain, martxoan egingo diren auzoka an-

tolatutako bileretan parte hartzeko izena emateko aukera dago bertan.

Auzo Elkartek herritarrek aktiboki parte hartzea gonbidatu ditu, egungo Feve lerroa metro lerro berria bihurtu dadin, metro sistematik duen maiztasun eta prezio berarekin.

Bilboko Zirkuitua antzerki programako bi antzezlan jasoko ditu Zorrotzak

Zorrotz Morrotz

Urtarrilaren 28an hasi zen XX. Bilboko Zirkuituak 14 antzezlan eta dantza-ikuskizun eskainiko ditu hiriko 13 konpainiaren eskutik martxoaren 26ra arte Bilboko hainbat auzotan. Zorrotzan bi ikuskizun aurreikusi dira: Katastrofen! teatroaren “Las fosas abisales”. eta Laura Samen “Arde la palabra”.

Ale hau argitaratzen denerako iragana egongo den otsailaren 26an Auzokan antzez-tuta izango da “Las fosas abisales” Katastrofen! teatro konpainiaren eskutik. Auzoan izango dugun beste antzezlanak kultur programa hau itxiko duen ikuskizuna da. Martxoaren 26an, hain zuzen ere, Laura Samen “Arde la palabra” saioaz gozatzeko aukera izango dugu Udaltegian, arratsaldeko 19etan.

Laura Sam artistaren lana idazkuntzarekin, ahozko poesiarekin eta spoken word delakoarekin dago lotuta. Zuzeneko emanaldietan, agertokira eroaten ditu testuak, eta ahozkotasuna, indarra eta erritmoa eranstean dizkio hitzari. Badarama ia hamarraldi bat era bateko eta besteko kultur inguruneetan lanean; hasi nazioarteko literatura jaialdietatik eta eszena-arte, antzoki, liburu-denda eta museoen topaketetara arte.

Jendearengandik oso hurbil daude eta osagai sozial handiko gaiak ditu lanak. Laura Sam-ek

spoken word ikuskizuna aurkeztuko du, “Incendiaria” bere liburuko testuak baliatuta: kritika sozialez betetako poemak, non baden leku bat isiltasunerako eta egonerako. Testu batzuk laguntzeko, We Are Standard taldeko Juan Escribanoren oinarriak baliatuko dira.

Programa honen barruko proposamen guztiak doakoak dira baina gonbidapenak erreserbatu beharko dira nahitaez, 688 603 737 telefonora deituta, ikuskizunaren egunean, 10:00etatik ikuskizuna hasi baino ordu bate lehenagora arte. Gainera, unean-uneako osasun eta higiene neurriak zorrotz beteko dira eta musukoa ezinbestekoa izango da.

Bilboko Zirkuituak helburu bi ditu: bertoko eszena bultzatzea eta antzerkia hiriko auzoetara hurbiltzea. Programa honen bidez, antzerki eta dantza taldeei aukera ematen zaie (gehienak amateurrak edo semiprofesionalek) euren lana taulartzeko eta jendaurrean erakusteko. Gainera, udal programa honek aukera paregabea ematen die herritarrei hiriko proposamen artistiko berri eta freskoenak gozatzeko.

Bilboko Zirkuitua ekimen aitzindaria eta bakarra da EAEn, bere arloan. Gainera, asko dira urte horietan guztietan eremu profesionalera salto egin duten konpainiak. Egitaraua osorik www.kulturabarrutik.eus webgunean kontsulta dezakezu.



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



Tapia Sobrino y Cia (Chimbo) lantegia (I)



Manu Cobo

Ba zan garai bai bat, Euskal herria garbitasun produktuen gunea zala. Zorrotzako "Txinbo" (Chimbo) (ondino Bilbon dekon sede bakarra izanda) edo Gipuzkoako Bilore edo Lagarto dira garai horretatik mantentzen diran produktuek.

Zaharrena Txinbo da, 1863. Urtean jaioa, Jose ta Bartolome Tapia Ugarte anaiek sortua (Deustun lehenagoz eta jarraian Zorrotzara ekarria), gero Victor Tapia Buesaren (beraien lobeia) esku itzi ebiela; handik esagutu dogun izena, "Antigua jabonera Tapia, sobrino y cia".



Victor Laguardian (Araba), 1867an jaioa eta Getxon 1949an hil zala, bigarren Karlistadan Bilbora etorri zan osabaren etxera, eta enpresan sartute (1883 Tapia y sobrino) gorantza egiten dau enpresak eta 1902.etik aurrera, gaur arteko izenegaz jada, itxel egiten dauela gora, iijenismo garaia gaz. Langile guztien erabilieragaz.



Honi esker, Bilboko goi enpresarien artean sartu zuen Victor, XIX. mendearen amaiera eta XX. Mendearen hasierako enpresa jabe gehienak burdin mehatzekoak ziren edo siderometalurgikoak, kontrari Victor sartu zuen La bilbainan eta halakoetan Txinbo jabeok esker. Gero Bilboko Merkataritza Ganberan hartu eban parte. Primo de Rivera diktadorearen "Partido liberal de Vizcaya" sorreran hartu eban parte, Unión Patriótica en la Diputación Provincial de Vizcaya gatik ahaldu izan zuen.

Banco de Vizcayan administrazio kontseiluen egon zuen 1921ean eta 1947 arte partu hartu eban horretan. 1937an frankoko estatu kolpeagaz Donostira eroan ebien bankuko egoitza, Bilbora barriro ekartzean, bera izan zuen zuzendari.... Gaur egun, bere emazteak (Dolores Sainz Isasi) sortutako fundazioak parte hartzen jarraitzen dau bankuko akzionista taldean.





TU COCHE · TU IMAGEN
Cuidado y limpieza de vehículos sin agua

Ibilgailuen Garbiketa Ekologikoa

✓ URIK GABE ✓ ESHUZ ✓ ARGIZARIAREKIN

Fernando García Otero
Parking La Alhondiga ☎ **675.185.457**
✉ alhondiga@detailcar.es www.detailcar.es



LAFTER ⚡

Elektrizitatea elektronikoa

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIAK: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net

MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013

cafe txinbo

Espezialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74



“Nire herria maite dut, baina bisitan baino ez naiz itzuliko, neure burua hemen ikusten dut luzerako”

JOSELIN LISETH PARDO

Jatorria: Ambato (Ecuador)

Noiztik: 2019. urtetik.

Adina: 23 urte.

Lanbidea: “Sabor Latino” elikadura-dendako saltzailea.

Duela 2 urte etorri zen gurera Joselin Liseth Pardo. Bere amak latindar elikadura denda irekitzea erabaki zuen Zorrotzan, eta gaur egun bera da bertako saltzailea.



Testua eta argazkiak: Naroa Peña

Nolatan eta zergatik etorri zinen?

Lehenik, nire ama 2001. urtean Espainiara etorri zen, eta urte batzuk pasa ondoren ni berarekin etortzea erabaki zuen. Espainiako hiri batzuetan egon ondoren, 2019. urtean, Zorrotzara etortzeko aukera lortu genuen, eta pentsatu gabe etorri ginen! Etortzeko arrazoi handiena, etorkizun hobea lortzeko aukera izatea izan zen.

Gogorra egin zitzaizun lan eta bizi ohiture-tara moldatzea?

Ba egia esanda ez... Hemen gazteleraz ere hitz egiten denez, ondo moldatu ginen. Erraza egin zitzaidan, eta ez nuen izan inolako arazorik.

Oso ezberdina da hango bizimodua edo auzokoa bezalakoa da?

Bai, benetan, desberdina da. Ekuadorren, ez daukagu hemen bezalako segurtasuna kaleetan. Eta diruduna ez bazara, eskolan adibidez, ez dizute tratu berdina ematen.

Zer da Zorrotzan gehien gustatzen zaizuna?

Auzo lasaia dela, eta jendea oso atsegina dela. Leku berri batera etortzen zarenean, hori asko eskertzen da.

Ambatora askotan bueltatzen zara?

Gutxi gora behera 2 urtean behin bueltatzen naiz. Gustatuko litzaidake askotan bueltatzea, baina bidai txartelak oso garestiak dira.

“ Ekuadorren, ez daukagu hemen bezalako segurtasuna kaleetan. Eta eskolan adibidez, ezberdina da ematen den tratua dirua izan ala ez izanda ”

Zer da Ekuadorretik gehien sumatzen duzuna faltan?

Nire familia eta lagunak ez ikustea dudarik gabe... gogorra egiten da jakina...

Nolakoa da zure eguneroko bizimodua?

Ia-ia egun osoa dendan ematen dut, orduan ez daukat gauza asko egiteko astirik.

Hemen latindar elikadura denda batean egiten duzu lan, zure herrian lan berdina zeneukan?

Ba nire herrian nengoenean eskolan nengoen oraindik. Ikasketak hona etorritakoan bukatu nituen. Nire amak denda ireki zue-
nean, nik saltzaile bezala jartzea erabaki nuen.

Bukatzeko, Zure herrira berriro bizitzera bueltatzeko asmoa izan duzu edo Zorrotzan betiko geratzeko erabakia duzu?

Asko maite dut nire herria, oso polita da, jendea ere faltan sumatzen da, baina bisitak egitera baizik ez naiz itzuliko. Oso gustura nago hemen, eta nire burua Zorrotzan ikusten dut!



BAR VENECIA

Espezialitateak:

Kafea, tortilla, tortilla bateak eta bestelako pintxoak

Abaro estrala IO

AUPA ATHLETIC

**AUTO ESKOLA
KAIKU**



Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10

**MESÓN
LUNA**

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

ZORROTZAKO OSTALARIAK

“Ez gara errudunak”

Gogor kolpatu du pandemiak ostalaritza. Eusko Jaurlaritzak tabernak ixteko agindu zuenean, antolatzeke beharra ikusi zuten ostalariak indemnizazioak eskatzeko eta hainbat mobilizazio burutu dute geroztik. Kutsatzeak tabernetan gertatzen ez direla sinetsita, justiziara jo dute, eta hautsak harrotu dituen ebazpen batek berriro zabaltzeko agindu du.



Testua eta argazkia: Aitor Marín

Pandemiak gehien kaltetutako sektorea izango da ostalaritza, zalantzarik gabe. Eta Covid-19ak sortutako egoerak auzoko ostalariak aurretik ez bezala antolatzerara behartu ditu. Hainbat tabernari, Laguntasuna merkataria eta Ostalarien Elkarteak kideak bazi- ren, baina ostalarien arteko antolakuntzarik ez zegoen auzoan. Udazkeneko olatuarekin batera Eusko Jaurlaritzak pasa den azaroaren 5ean tabernen nahitaezko itxiera ezarri zuenean, asanblada bat antolatu zuten ostalariak WhatsApp eta sare sozialen bidez. Bertan auzoko 52 tabernetatik, ordezkaturak zeuden 51. Eta aste eskas batean, auzoan gogoratzen den mobilizaziorik jendetsuenetarikoa antolatzea lortu zuten. “Jendearen erantzuna itzela izan zen eta eskertu beharrra dago” adierazi digu Txema Carbajok, El 10 de Fray Juan tabernako arduradunak eta ostalarien bozeramaileak. Herritarrek bere aldarrikapenekin bat egin dutela uste dute,

eta laguntza hori ez dute galdu nahi. Horregatik, “zarata ateratzean, jendea ez gogaitzen” saiatu dira, adibidez errepideak moztea saihestuz.

Udazkeneko ixteko dekretu horren ostean “errudun bakartzat” seinalatuta sentitu ziren ostalariak eta orduan antolatzeke beharra ikusi zuten tabernariak eta laguntzak eskatzeko mobilizazioak hasi zituzten. Horretarako, aspalditik Bilboko Udalarekin arazoak izateagatik Alde Zaharrean jada eratuta zegoen plataforma bat baliatu zuten, “Bizkaiko Tabernariak” deituta, eta Bilbo mailako asanbladetan parte hartzen hasi ziren Zorrotzako hainbat tabernari. Egoerak okerrera jo zuen, eta “laguntzak ez ziren jada nahikoak, eta indemnizazioak” eskatzen hasi ziren. Horrez aparte, autonomo-kuotak eta hainbat udal-zerge ere ez ordaintzea aldarrikatzen dute. “Lau hilabete eman ditugu jarduerarik izan gabe” azpimarratu du Carbajok.

Laguntza eskasak

Hasierako mobilizazioen ostean, hainbat laguntza jaso dituzte, baina tabernarien ustez ez dira nahikoak: "Oso eskasak izan dira, eta gainera batzuk ez dira oraindik heldu". Eusko Jaurlaritzarengandik 3000 euro jaso dute, eta beste 1000 euro Udalarengandik. "Zorrotzan taberna baten alokairuaren batez bestekoa 1000-1200 eurokoa da; lau hila-bete eta erdi itxita egotera behartu gaituzte, beraz, atera kontuak: laguntza horiek ez dira nahikoak, ezta alokairua ordaintzeko ere" deitoratu du Txema Carbajok. Kontuan izan behar da tabernak zabalik egon direnean, edukieran murrizketak egon direla eta pandemia egoerak negozioa guztiz baldintzatu duela. Hala ere, egoera normalean zituzten gastu finkoak ez direla desagertu gogoratu digu Carbajok.

Krisia hasi zenetik, etengabe aldarrikatu dute ostalaritza ez dela erruduna. Eta horrela berretsi du tabernak berriro irekitzeko agintzen zuen otsailaren 9ko EAEko Auzitegi Nagusiaren ebazpenak. "Datuak hor daude, eta oso aintzat hartzekoa da zer zaila den normalean irabaztea epaile baten-gana agintarien kontra joanda" argudiatzen du Carbajok. Hautsak harrotu ditu ebazpen honek, baina argi dute tabernariak: "Helegitean agertzen ziren datuak oso zehatzak ziren, eta hainbat aldetatik tribunaleko epaile bat jipotzen saiatu arren, eztabaidan ezkutatzen ari da tribunala hiru epailek osatu zutela eta hirurek aho batez hartu zutela erabakia".

Jasotako laguntzak ez dira nahikoak izan ostalarien ustez, eta ixtera behartuak izan zirenean egoera normalean zituzten gastu finkoak ez zirela desagertu gogoratzen dute

Tabernak berriro irekitzeak ostalarien hasierako batasuna moztu du nolabait. "Hasieran, denok itxita geundenean errezagoa zela" azaltzen du El 10 de Fray Juaneko arduradunak, eta batzuek mobilizazioa uztearen arrazoiaren artean, nekea aipatzen du: "Manifestazioak egin eta egin ostean, sari potolorik ez ikusteak nekatzen du, baina beste modu batez bada ere, guztiok ostalarien eskubideen borrokan jarraitzen dugu".

Kolpe latza, baino itxaropentsu

Etorkizunari buruz galdetuta, krisialditik atera ezinean geldituko diren ostalari asko egongo direla aurreikusten dute, baina auzoan guztiek egoerari eustea espero dute. "Kolpe latza izan da, baina hemen zorionez ez gaude turismoaren menpe erdialdean gerta daitekeen bezala. Gure bezeroak betiko auzokideak dira, eta askoz kontzientzia handiagoa dago erdialdean baino". Bukatzeko, haien egoera ekonomikoak ez ezik, egoera soziosanitorioak ere hobera egitea espero dute, izan ere, bata bestearekin lotuta baitaude. Guztion onurarako, hala izan dadila.

ehbildu

**egiteko
beste
modu bat**



ASKABIDE
kultur elkartea
Zorrotza





JABI PUERTAS: Industri Ondare
eta Herri Laneko Euskal
Elkarteko presidentea

“Molinos Vascosen egoera Fiskaltzan salatuko dugu, Aldundiak bere erantzukizuna bete dezan”

80ko hamarkadan, euskal industriaren eraiste-prozesuaren erdian jaio zen “Asociación de Amigos del Museo de la Técnica de Euskadi” elkarte. Geroztik lan nekaezinean ibili dira gure industria ondarea babestu eta ezagutarazteko, sarri euskal erakundeen utzikeria salatuz. 2009tik aurrera IOHLEeko lehendakari den Jabi Puertasekin solasean aritu gara eta gure ondare aberatsa babesteko Euskal Industriaren Museo baten beharraz konbentzitu gaitu.



Nola eta zergatik sortu zenuten elkarteak? Bazenuten inolako aurrekaririk?

Industria ondarea babesteko mugimendua-
ren hasiera 1960ko hamarkadan kokatu ohi
da, Ingalaterran. Horren aurrekaritzat jotzen
da Londreseko Euston tren-geltoki zaha-
rra eraistearen kontra sortutako protesta.
Euskal Herrira etorrita, 1982. urtean, Eusko
Jaurilaritza eta Kataluniako Generalitatea sor-
tu berrien bultzadaz, Ondare Industrialaren
Babes eta Birbalorapenaren I. Jardunaldiak
antolatu ziren, Bilbon eta Barakaldon. Urte
horretarako, han-hemenka baziren industria
ondarearen inguruko ikerketa batzuk, argital-
penak tarteko, eta bai Katalunian bai Euskal
Herrian, “Teknikaren Museoa” sortzearen al-
deko mugimendua bazegoen. Bada, jardun-
aldiak bukatzean, partaide batzuek “Asocia-
ción de Amigos del Museo de la Técnica de
Euskadi” sortzea erabaki zuten, museo hori
lortzeko asmoz.

Zergatik Teknikaren Euskal Museo baten beharra?

Dudarik gabe, Euskal Herria, eta Katalunia
ere bai, industriagune oso garrantzitsuak
izan dira eta gure gizartearen bilakaera eta
nortasuna bera ezin uler daiteke industriaren
eragina kontuan hartu gabe. Gure egungo
bizi-maila horren ondorio bat da, industriagu-
neetako langileek egindako hainbeste lan eta
borroken fruitu. 80ko hamarkadan, desindus-
trializazio prozesuaren erdian, oroimen hori
galtzeko arriskua ikusten genuen eta gure
iragan industrialak gogoratu eta aldarrikatze-
ko museo bat edukitzea ezinbestekotzat jo-
zen genuen.

Zeintzuk izan ziren elkartearen lehen urra- tsak?

Berehala, Eusko Jaurilaritza konbentzitu ge-
nuen museo bat egin behar zela eta kokape-
na ere adostu genuen, Lutxanan. Jaurilaritzak
zuzendari eta administratzaile bat izendatu
zituen eta museoaren bildumarako piezak
bilatzeari ekin zioten. Elementu pila bat bil-
tzea lortu zuten, baina handik gutxira, Gug-
enheim proiektua etorri eta Kultura Sailaren
inbertsio osoa irentsi zuen, Teknikaren Mu-
seoa zeharo alboratuz. Hori sekulako kolpea
izan zen gure elkartearentzat.

Zer gertatu zen bildutako pieza horiekin?

Bada, 2000. urtera arte Lutxanan gordeta
egon ziren, Barakaldoko Udalak eraikinari
beste erabilera bat emateko berreskuratzea
erabaki zuen arte. Orduan beste biltegi bat
proposatu genion Jaurilaritzari: Zorrotzaurreko
Consoni lantegi abandonatua. Etorkizunean
industriaren euskal museoa izan zitekeela-
koan aukeratu genuen. Izan ere, guk ez dugu
sekula museoaren helburua baztertu eta beti
argi izan dugu Bilboko itsasadarrean kokatu-
ta egon beharko lukeela. Orduan, piezen le-
kualdatzea eta gero, antolatzen hasi ginen eta
2012. urtetik aurrera bisita gidatuak egiten ibili
gara Consoni lantegian, pandemia etorri arte.
Eta, zer diren gauzak, Bilboko Udalak lantegi
hori eraisteko presioak direla-eta, Jaurilaritzak
Barakaldoko Udalarekin akordioa egin berri
du piezak berriz ere Lutxanara bidaltzeko.

“ 2000-2010 hamarkada beltza izan da gure industria ondarearentzat ”

Atzera bueltatu gaitezen, zer egin zenuten museoaren proiektua zapuztu ondoren?

Museoarekin ala gabe, argi geneukan indus-
tria ondarea desagertzetik babestu behar
genuela. Fabrikak desagertzen hasiak ziren
eta gu beti Kultura Sailaren atzetik, “hau eta
bestea babestu behar duzue”. Orduan, Saila-
ren kezka zen zertan oinarritu babestu beha-
rreko elementuak aukeratzeko eta elkartetik
inbentario bat egitea proposatu genien, be-
raiek ordainduta, noski. Baiezkoa lortu ordu-
ko buru-belarri ekin genion Euskal Industria
Ondarearen Inbentarioa osatzeari.

Nolakoa izan zen prozesu hori?

Gure elkarteko arkeologo eta historialariak in-
plikatu genituen eta beraien lan-metodologia-
ri jarraituz bostehun-bat elementu zerrendatu
genituen. Kultura saileko teknikariekin ere bile-
ra asko izan genituen, zerrenda horretan egon
behar zirenak eta ez zirenak eztabaidatzeko.
Lehen inbentarioa 1995ean argitaratu zen,
Estatu osoan lehena izan ere, eta gerora erre-
ferentzia bezala hartu izan da beste toki asko-
tan. Gaurdaino, bostehun elementu horietatik



“Euskal Industriaren Museo bat beharrezkoa da, industriak gure herrian izandako eragina ulertzeko”

120 babestea lortu dugu. Zorrotzan, Alzolako zubia, Molinos Vascos eta Talleres de Zorroza dira Eusko Jaurlaritzak babestutakoak.

Ondare asko betiko galduko zen...

Bai, Zorrotzatik atera gabe, Molinos Vasco-seko bulegoak, Tapia xaboitegia, antzinako hiltegia... Eta kontraesankorra badirudi ere, Eusko Jaurlaritzak berak bultzatu zuen prozesu hori. 90eko hamarkadan kokatu behar gara, “city marketing”-aren olatuan geunden, Bartzelonako Olinpiada horren sinboloa zelarik. Gure hirietako iragan industrialak ezabatu behar zen, zerbitzueta eta turismoan oinarrituz birsortzeko. Halaxe mintzo ziren garaiko politikariak egunero komunikabideetan. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak Industria Hondakinak Eraisteko Programa delakoa martxan jarri zuen. Abandonatutako lantegiak botatzeko dirulaguntzak euren jabeek eman ez ezik, lurzoru horiek birkalifikatzeko aukera ere eman zieten, urbanizagarri bihurtzeko. Lurzoru horietako askotan etxebizitzak eraiki ziren, aski ezaguna den burbuila elikatuz. 2000-2010 hamarkada beltza izan da industria ondarearentzat.

Ez zegoen lantegi horiek eraistea gelditze-ko modurik?

Babestutako ondare bezala izendatzeko agindua behar zen Eusko Jaurlaritzaren aldetik, edo behintzat balorazioa egiteko agindua. Baina eraiste politika hain bortitza izan zen non, praktikan, eraikin askok ez zuten salbatzeko astirik izan. Interesgarria da Lurralde Antolamendu Sailak diruz lagundu zituen eraisketak 1995eko inbentarioarekin alderatzean, kointzidentzia ugari ikusten dira. Horrek ematen digu sasoi horretako hirigintza politiken neurria. Are gehiago, 2005. urtean inbentarioa eguneratu behar izan genuen, desagertutako ondarea itzela izan zelako.

Gaur egun, zer nolako egoeran dago gure industria ondarea?

Argi dago 2008ko krisiaz geroztik, testuinguru oso bestelako batean bizi garela. Politikariak industriaren garrantziaz jabetu dira kalitatezko enpleguak bermatzeko. Ez dago, beraz, gure industriaren zantzuak ezabatze-ko obsesio hori. Horrek ez du esan nahi ondarea babesteko pauso sendoak ematen ari direnik, ezta legez babestuta dauden elementuen kasuan ere. Hor daude Zorrotzako Molinos Vascos eta Talleres de Zorroza, biak ere legez babestuta baina guztiz abandonatuta.

Nola da posible legez babestuta dagoen elementu bat hondatzen uztea?

Diru kontuak! Molinos Vascos eraikinak jabe partikular bat du eta legearen arabera, jabea bera da eraikina babesteko lehenengo erantzulea eta Bizkaiko Foru Aldundia, berriz, erantzule subsidiarioa. Alegia, jabeak egin ezean, Aldundia behartuta dago eraikina mantentzera, faktura gero jabeari ordainaraziz, noski. Kontua da tamaina horretako eraikin bat eraberritzea oso garestia dela eta argi dago Aldundiak ez duela diru hori aurreraterik nahi. Beste aukera bat espropiazioa litzateke, baina horrek ere dirua jartzea ekarriko luke... Gauzak horrela, aipatzea Kultura Diputatuarekin bilera bat eskatu berri dugula, gure elkarteak Molinos Vascosen egoera Fiskaltzan salatuko duela informatzeko.

Jarraitzen duzue Euskal Industriaren Museo bat aldarrikatzen?

Noski, hori guretzat aldarrikapen zentral bat da. Euskal Herrian 20 bat industria museo sektorial ditugu: trenbidearena, meatzaritzarena... Baina gure herrian industrializazioaren ikuspegi orokorra emateko eta museo sektorialak elkarrekin lotzeko tresna bat beharrezkoa dela uste dugu. Jakingo duzue, gure betiko asmoa izan da museo hori Molinos Vascosen kokatuta egotea eta horregatik, 2005ean Eusko Jaurlaritzak aurreproiektu bat egitea eskatu zigun. Boom inmobiliarioaren urteak ziren eta itzelezko dirutza eskatzen zutenez, aukera hori berehala baztertu egin zen. Horregatik gure bigarren aukera Consoni lantegia zen eta horrek ere huts egin du. Beraz, gaur gaurkoz, Lutxanako aukera da mahai gainean daukaguna, ikusiko dugu.

Turismoak ondarea babesten lagundu dezake?

Noski, hor dugu adibidez Balmasedako La Encartada txapel fabrika zoragarria. Baina ondarearen babesak ez du zertan turismoarekin lotuta egon. Esaterako, Deustuko Tigrearen eraikinean etxebezitzak egin dituzte eta ondarearen kontserbazioaren aldetik, esku-hartze zuzena egin dela uste dugu. Iralan, Harino Panaderako eraikinean Osasun Zentroa jarriko dute eta hor ere ondare industrialak ondo mantendu dela uste dugu.

Esku-hartze oker baten adibiderik?

Bizkaiko Zubiaren kasua oso esanguratsua da. Zati batzuk aldatu egin zituzten kaltetuta omen zeudelako baina zati berrietan jatorrizko lotura-mota, errematxaketa, errespeta-tu beharrean, soldadura jarri zuten. Non eta UNESCOko ondarea den zubian! Gure ustez, esku-hartze horren atzean zegoen zubi gaineko oinezkoen pasabide turistikoa irekitzeko asmoa, betiko egiturak turistak joan-etorriari eutsi ezin izango ziola bazekitelako. Hori gutxi balitz, erazutiko zati zaharrak zubiko dendan salgai jarri zituzten! Tamalez, hedabideetan margoaren kolorea aldatzeko egin zuten herri-bozketaz gehiago hitz egin zen, jokaldi borobila!



El 10 de Fray Juan

Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta afariak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, kombinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

Martxoak 26 ostirala

BILBOKO ZIRKUITUA kultur programa

19:00 Zorrotzako Udaltegia

SORMENA ETA INTERPRETAZIOA:

LAURA SAM: "Arde la palabra".



Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (maiatza-ekaina) iragartzeko, zmorrotz@gmail.com helbidera idatziz apirilaren 17a baino lehen.

Euskal encodings

www.euskalencodings.com

Duela gutxi Interneteko Argia Saria jaso du Euskal Encodings proiektuak. Euskal Encoding euskarazko film eta telesailen gordelekua da. Euskarazko tehebista produktuak kontsumitzeko denon eskura, dohainik!

Pantailen aurrean euskaraz bizitzea zaila bada, gora "piratak"! Sartu eta arakatu haur zein helduen-zako edukia.



EUSKAL
ENCODINGS

Home

Historiala

Guzuzen

Guzuzen (bataz besteko informazioa)



Ali-oli patata tortilla



Osagaiak: 12 arrautza, 8 patata ertain, udaiazpikoa, barregorriak, oliba-olioa eta gatza
Ali oliba egiteko: maionesa, baratxuriak eta perrexila

Zuritu eta ebaki patatak. Su motelean frijitu. Ira-biatu arrautzak. Dena nahastu eta gatza gehitu. Maitasun handiz egin!

Ali-olia egiteko, maionesa bota behar dugu ontzi batean. Baratxuriak eta perrexila gehitu. Gero, irabiagailuaz dena nahastu. Jarraian, ali oli eta barregorriak nahastu eta bota patata tortilla gainean. Urdaiazpikoa xehatu eta bota gainean apaintzeko.

Zailtasun maila: Erraza, baina denbora behar da.
Prezioa: 1,60 euro.

ROCKET TAVERN

Fray Juan kalea, 8. Telefonoa: **94-6556898**

Ordutegia: 6etatik - 23:30era

Covid-19 **ordutegi berezia:** 6etatik- 21:00etara



Doinua:
Oso polita zara izatez

Kaleak sutan jendea zutik

atzo eta gaur oster

amorruren eroalea

sarri askotan norbera

barruko suak kiskal dezake

esperantza egoera

baina amorrua antolatuta

egin daiteke aurrera

kaleko suak bultzatuko ahal du

akaberaren hasiera.

Asier Urkiza



Herriak ez du barkatuko (XXII. Igartza saria)

Irati Goikoetxea Asurabarrena.

Elkar. 2021. 180 orrialde.



ETak aita hil zion Oihanari duela hogeita bi urte, berak hemeretzi zeuzkala. Zauria bizirik du oraindik, baina ez du horretaz inorekin hitz egiten; bere seme-alabei ere ez die ezer argirik kontatu, nahiz eta barruan sumatu on egingo liekeela denei. Ezustean, biktima ezberdinen lekukotasunak jasotzen dabilen antropologo baten deia jasoko du, ea berarekin bildu nahi duen.

Gai minbera bat sentiberatasunez landu du Irati Goikoetxeak bere lehenengo eleberri honetan, aldarri ozenen ordeaz enpatia ahalegin bat eginez, delikadeziaz eta emozioz. Hitzen ukenduak ere balio duelako

oinaze zaharrak leuntzeko, edertasunak ere lagundu dezakeelako pertsonak –eta herriak– hobeak egiten.



Burutik: “Paradisua”

(Autoekoizpena) 2020



Lagunen gomendio musikalei kasu egitea garrantzitsua da. Bada, gomendio bati esker Burutik talde nafarra ezagutzeko aukera izan dut duela gutxi. Iragan urtean “Paradisua” izeneko lana ateratu eta talde gaztea izaki proposamen interesgarria aurkituko du entzuleak estreinako diska honetan. Azal deigarriaren atzean konposaketa lan handia dagoela nabari da. Eta hain gazteak izanda gure lurraldeko

etorkizun musikala bermatuta egotea espero dugu.

Hasteko, kitarrajole eta ahots nagusietako bat eta baterijolea emakumeak izatea garrantzitsua eta beharrezkoa da eszenarako. Gizonak nagusi diren arlo honetan deigarria suertatuko zaie askori baina era berean ez litzateke horrela izan behar, musikak ez baitu sexurik desberdintzen. Normaltasuna finkatzeko bidean harro egoteko modukoa. Estiloari dagokionez, multikolorea bezala defini daiteke “Paradisua”. Influentzia desberdinek eta batez ere eskusoinuaren erabilera ez oso ohikoak ukitu berezia ematen diete abestiei. Baina hau guztia hau frogatzeko Spotify edota Youtuben bilatzea besterik ez duzue.

Ibai Barrios



ROCKET TAVERN

Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12



Afariak ostirala
eta larunbatetan
Etxeko berezitasuna:
katxopoa.

Telefonoa: 944 415 416
Zorrotzabaso, 13
ZAZPI LANDA

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



Dena oso chill

Chill Mafia talde iruindarraren estreinakoak zalaparta sortu du sare sozialetan. Eta zein da alegiaren irakaspena? Ez dago irakaspiderik, hau ez delako alegia bat. Musika egin nahi duten gazteak besterik ez dago. Konplexurik gabe egin ere. Bere errealitateari uko egin barik.

Chill Mafia talde iruindarraren estreinakoak zalaparta sortu du sare sozialetan. Taldea ez zen sortu berria, Youtuben hainbat kanta argitaratuak zituenek. Euskal kulturaren mundu(txo) itxi eta endogamikoan, baina, berritasunaren xarmak liluratu du hasieran. "Gazte arruntaren koplak" izeneko kanta arrapaladan biralizatu da. "Xabier Leteren bertsio gaurkotua!" deiadarka batzuk. Betiko orojaki-leak lehenengo unetik estilo berriaren nondik norakoak aletzera emanak. "TRAPA da hau, aizue, T-R-A-P-A. Bai, gazteek egiten duten musika fresko hori". Sare sozialetako denboraren deformazioa medio, bigundu erdi ge-roago dena zen testosterona-betiko-berbera, dena matxismoa eta kirats zaharmindua.

Beti dago oradore bat taldetik bereizi eta predikua esaten duena. Ez, dagoeneko ez zaizkizue gustatu behar. Gainera, ez dira hain berritzaileak ere. Estilo hori bera (trapa?) Negu Gorriakek egiten zuen orain dela 30 urte. Euskal musika aspergarria? Bai zera!



Chill Mafia, egun batean euskal kultura eraldatzera zetozkeen Aresti eta Mirande berriak; hurrengoan, nork esango, bi horiena bezalako patu tristera kondenatuak, ahanzturaren lurraldera igorriak. (Azken esaldi honek poesia lehiaketaren bat konbalidatuko dit, ez da hala?)

Eta zein da alegiaren irakaspena? 30 urtetik gorakoei Twitter erabili dezaten debekatzea? Fermin Uguruza behingoz erretiratzeko? Edo Martin Ugalde kultur parkea erretzea? Ez, ez dago irakaspiderik, hau ez delako alegia bat. Egin daitezkeen mila zertzelada teorikoen atzean, irakurketa marxista (batzuk Groucho-renak, besteak Karlenak) beharrezko bezain aspergarrien atzean zera besterik ez baitago: musika egin nahi duten gazteak. Konplexurik gabe egin ere. Bere errealitateari uko egin barik. Eta zergatik ez, asmo bakarra ez iza-nagatik bide batez kontsumitzaile middle-class zuhurra apur bat asaldatzea. Asaldatu beharra dagoelako. Kultura ez delako seguru. Tira, Netflix, HBO eta horiek bai. Eta rol jolasetara jolastea. Hori dena oso seguru da. Dantzan, ordea, pausu bakoitzean orkatila bihurritzeko arriskua dago, aldaka mila puskatan leherrarazteko perila. Mugimenduak horixe dakar, buruaren jabe izateko ahalegina, ekilibrista lana, soka noiz tenkatu, noiz laxatu. Nietzche: "Nik dantzan dakiene Jainko batengan baino ez nuke sinestuko"

Asier Urkiza



Bultza

euskaltegiak!
euskara! *æk*

Informazioa
www.aek.eus



Marx Bakunin = Covid-19 gutxiago?

2021eko martxoaren 12an beteko da urtebete pasa den urteko alarma egoera eta etxeko konfinamendu orokorra ezarri zirenetik. Urtebeteko ibilbidean pandemia honek hausnartzeko elementu eta paradoxa asko eta asko utzi dizkigu. Lau aipatu nahiko nituzke:

- 1 Covid-19ak ez du sortu kapitalismoaren krisia, areagotu baizik. Zibilizazio burgesa eta sistema kapitalista egiturazko krisi sakonean sartu zen duela 10 urte baino gehiago, krisi anitzez osatua: krisi ekonomikoa, politikoa, soziala, energetikoa, migrazioaren, elikagaien, zaintzaren eta klimaren krisia, eta abar. Mundu mailako osasun krisi berri honek aurreko guztiak azkartu eta sakondu ditu.
- 2 Pandemia ezkutaleku ederra izaten ari da. Baina pandemia honek sistema kapitalistaren ezinak eta gabezi handiak estaltzeko balio du: shock doktrina erabiliz neurri berriak asmatzen eta benetako arazo iturriak ezkututzen. Etorriko diren zenbait erabaki (ekonomikoak, segurtasuna,...) justifikatzeko aitzakia ona izango da.
- 3 Covid-19ko pandemiak argi uzten jarraitzen du sistema kapitalista klasista dela. Hasieratik ez da izan berdina birusa hartzea herrialde txiroetan edo herrialde aberatsen. Afrikan txertoak probatzen hasi ziren

laborategiko animaliak izango balira bezala. Txertoa ateratzean diruaren boterea eta klasmooa ikusten jarraitzen dugu. Txertoa diru gehiago ordaintzen duenak aurretik lortzen du. Europak erositako dosi asko ez ziren heldu Israelera joan zirelako, Israelek diru gehiago ordaindu omen zuelako. Baina Israelek gero blokeatu ditu Palestinara zihoa-zen errusiar txertoen dosiak.

Bizkaian ere klasismo hori ikusi dugu VIP txertoekin. Bilbon ondo ezagutzen ditugun Sabas eta Maiz zinegotzi ohiek eta Bilboko udal gobernuko kide ohiek argi eta garbi erakutsi zuten zer den protokoloa haustea eta haien interesak besteen gainetik jartzea. Mendebaldeak Errusiako Sputnik V txertoaren kontra aritu izan zen hasieratik borroka geopolitikoa osasunaren gainetik jarritz. Hori bai, horren beharra ikusi dugunean, txertoa oso ona dela aitortu dugu.

- 4 Azkenik, Pandemian herrialde sozialistak beste balio batzuekin aritu dira, Venezuela edota Kuba beste herrialde batzuk laguntzen aritu ziren hasieratik (Italiako irudiek argi utzi zuten bezala). Txertoen harira mundu mailan ez dago Kubak egingo duenaren parekorik: asmatu dute txerto propioa, 100 milloi dosi sortuko dituzte eta 75.000 dosi herrialde txiroetan laguntzeko bideratuko dute, ez diruagatik, elkartasunagatik baizik. Gainontzeko herrialdeak Kuba bezala arituko balira (balio sozialistekin), mundu hone-tan arazo gutxiago egongo lirateke.

Saül Kurto



VÍA gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

DisenUp

Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa:
zmorrotz@gmail.com

1^o urte



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

TXOKO FEMINISTA



Otsailaren 6an Emakumeen Genitalen mutilazioaren aurkako eguna ospatzen da. Emakumeen genitalen mutilazioa bada gure inguruan aurkitu dezakegun praktika tradizional kaltegarriarik ohikoena. Emakumeen kanpoko genitalak erabat edo partzialki kentze edo aldatzeko modu guztiei deitzen zaie, betiere arrazoi terapeutikoengatik egin beharrean, arrazoi kulturalengatik egiten bada. Honek badiu ondorio psikologiko larriak eta epe laburrera eta luzerako osasun konplikazioak, heriotza barne.

Estatuan eta Euskal Herrian, emakumeen genitalen mutilazioa praktikatzen duten herrialde eta etnietako emakumeak eta neskak badaude. Horregatik, Espainiako autonomia erkidego askok emakumeen genitalen mutilazioa prebenitzeko protokoloak sortu eta aplikatzen dituzte, bai hezkuntza erakundeak, osasun sistema eta sistema legala barneratuz. Euskadin adibidez, Osakidetzan emakumeen genitalen mutilazioaren aurrean jarduteko osasun protokoloa aplikatzen da eta Bizkaian, erakunde desberdinak barneratzen dituen Bilboko Udaleko Emakumeen Genitalen Mutilazioaren Prebentziarako Protokoloa badago indarrean.

SALAKETA ARGAZKIA



Burdinazko txorkorik ez hainbat kaletan

Hainbatetan aipatu dugun bezala, auzoko zuhaitz pila bat dago txorkorik gabe, eta horrela sustraia garbi mantentzea zailagoa da. Horrelako egoeran daude adibidez, Zorrotza Kastrexana errepideko, Zorroztzoko kaleko eta Fray Juan kaleko hainbat zuhaitz. Agerian da eskari honek ez duela erantzunik jaso, nahiz eta Auzo Elkarteak jada askotan eskatu.

Regalos
Omega
oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetalles.com



Tel. 94 441 62 75




FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfnno. 94 441 61 46



Marlene

Gutxienez bi edo hiru urte gehiago ziur.
Hori pasa ostean, erabilera aukeran utziko dutela uste dut



Gorka

Urte oso honetan araman behar izango dugu. Txertoak ez datoz espero zen erritmoan eta egoera luzatuko dela dirudi

Musukoaren erabilera:

2021ean musukoa erabiltzeko beharra atzean utziko dugu?



Beatriz

Luzerako doa. Pare bat urte gehiago gutxienez.



Ainhoa

Kalean 2 urte gehiago.
Leku itxietan 3 gehiago.



Ricardo

Behintzat aurten, ororik esango nuke.
Egia esanda, niri maskara eramatea une oro oso astuna egiten zait jada.



Yhio

Oraindik egoera oso latza da.
Behintzat 2022. urtera arte musukoa jarri behar izango dugula uste dut

Restaurante
Arsenio
 Pintxo askotarikoak
 Menu bereziak (enkarnez)
 Eguneko menua

Tfno. 94 497 10 03
 Clara Campoamor, 6
 48013 BILBAO



Zorrotzako
labea

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepeidea, 34
 Tfno. 94 441 09 71
 Zorrotza - 48013 BILBO



PICOS
 burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
 Telefonoa: 94 441 64 86

Bilbon euskaraz



Bilbao

▶ www.bilbaoeuskaraz.eus

iKasi
Mi Kasi!

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



CEIP ZAZPIKANDA-ZORROZGOTTI ELIZ

Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75
📧 sietecampas@gmail.com



CEIP ZORROTZA-FRAY JUAN ELIZ

Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21
📧 014159aa@hezkuntza.net



San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 428 01 36
📠 94 428 01 37
📧 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

INBERTSIO FONDOAK ETA ZORROAK



kutxabank

Lehenengoak 2020an

Estatu osoan egindako
harpidetza garbietan

Inbertsio %100 arduratsua

3.500 aholkulari espezializatuta

zure neurriko inbertsioa
eskaintzeko

Estatuko finantza-erakunde kaudimentsuena

seigarren urtez
jarraian

ITURRIAK:

- HARPIDETZETAN IZANDAKO HAZKUNDEA, INVERCO TXOSTENEAN JASOTAKOAREN ARABERA ETA 2021eko URTARRILEAN EXPANSIÓN EGUNKARIAK ARGITARATUTA.

- UNPRI ERAKUNDEAK, FINANTZA-MERKATUA JASANGARRIAGO BIHURTZEKO ASMOZ NAZIO BATUEK BULTZATUTAKO NAZIOARTEKO INBERTITZAILA-SAREAK, KUTXABANKEN INBERTSIO ESTRATEGIA ZIURTATU DU ONDOZ ONDOKO BIGARREN URTEZ GIZARTEAREKIN ARDURATSUA IZATEAGATIK.

- KUTXABANK IZAN DA ESTATUKO FINANTZA ERAKUNDE KAUDIMENTSUENA SEIGARREN URTEZ JARRAIAN, EUROPAKO BANKU AGINTARITZAK GARDENTASUNARI BURUZ EGINDAKO ARIKETAREN ARABERA.

- TOP 1000 WORLD BANKS 2020. BEST PERFORMING BANKS. THE BANKER ALDIZKARIAREN ARABERA.

ZORRO DELEGATUEN INBERTSIO ZERBITZUAREN EMAILEA: KUTXABANK SA. OSAERA: KUTXABANK GESTIÓN SAU IKESK SOZIALTEAK KUDEATUTAKO INBERTSIO FONDOAK.

GORDAILUZAINA: CECABANK SA. (ALCALÁ 27, 28014 MADRIL. IFK: A86436011. 2012/11/16an ETA 236 ZENBAKIPLEAN IZENA EMANDA CNMVren ERREGISTROAN).

FOLLETO OSOA ETA INBERTSIO FONDO BAKOITZARI BURUZKO INBERTITZAILAERENTZAKO OINARRIZKO DATUAK DAKARTZAN DOKUMENTUA CNMVn DAUDE INSKRIBATUTA. GAINERA, CNMVn, SOZIALTE KUDEATZAILAEN, BULEGOETAN ETA WWW.KUTXABANK.ES WEBGUNEAN JASO DAITEZKE.

Kutxabank, SA. Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo.
IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta.
5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.

